



OTZAUURTEKO ETA ALKIZAKO
ESKALADA GUNEEN ERREGULAZIOA

REGULACIÓN DE LA ZONAS DE ESCALADA
DE OTZAUURTE Y ALKIZA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapena, Landa ingurunea eta Lurralde orekako departamentuak eta Gipuzkoako Mendizale Federazioak elkarlanean dihardugu Gipuzkoako eskalada guneetan espezie mehatxatuen garapenean sor daitezkeen eragozpenak ekiditeko. Horrela, eskalada jasangarriaren praktika ohizkoa izango da epe laburrean Gipuzkoan, eskalatzailen ezinbesteko lankidetzaz baliatuz.

Desde el departamento de Desarrollo económico, desarrollo rural y equilibrio territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Federación Guipuzcoana de Montaña venimos colaborando para que la práctica de la escalada y la conservación de las especies amenazadas sean compatibles.

Irizpide nagusi bezala espezien babesa erabilera publikoaren gaintik ezartzen den arren, debekuan baino erregulazioan oinarritutako kudeaketa aurrera eraman nahi da bi erakundeen aldetik. Hala ere, kasu batzuetan, espezie mehatxaturen baten gainean eskaladak izan dezakeen eragina handia izan daitekeela baloratzen bada, debeku puntualak ere ezarri litezke.

A pesar de que el criterio principal es que la conservación de las especies prevalece sobre el uso público (práctica de la escalada en este caso), es voluntad de las dos instituciones llegar a acuerdos entorno a una regulación que satisfaga a las dos partes.

Etorkizun labur batean Gipuzkoako eskalada gune guztien erregulazio plana egitea da asmoa. Erregulazio horretan eskalada guneak hiru mailatan banatuko lirateke: urte guztian eskalada debekatua duten guneak (gune gorriak), urteko sasoiaren arabera eskalada baimendua edo debekatua dutenak (gune horiak) eta urte guztian zehar eskalatu daitezkeen tokiak (gune berdeak).

Estamos trabajando para que todas las zonas de escalada de Gipuzkoa se clasifiquen en tres tipologías: zonas donde se puede escalar todo el año (verde), zonas donde se podrá escalar alguna época del año (amarillo) y zonas de prohibición (rojos).

Otzaurte eta Alkizako kasuan ondoko erregulazioa adostu dugu:

En los casos de Otzaurte y Alkiza hemos consensuado las siguientes regulaciones:

Otzaurteko eskalada gunea: urriaren 1etik abenduaren 31ra eskalada baimendua egongo da, beste hilabeteetan ez baimendua.

Zona de escalada de Otzaurte: se podrá escalar desde el 1 de octubre hasta el 31 de diciembre. El resto del año queda prohibido.

Alkizako guneari dagokionez hiru eremu bereizi dira:

Respecto a la zona de Alkiza la regulación es diferente según la zona:



**Gipuzkoako
Mendizale
Federazioa**

ESKALADA JASANGARRIA **ESCALADA SOSTENIBLE**



- Belako haitza: eskalada baimendua urte guztian
- Hargorri: baimendua urriaren 1etik otsailaren 28/29ra, beste hilabeteetan ez baimendua.
- Endaitzburu: debekatua urte guztian

Debeku horiek oinarri zientifikoa dutenez, eskaria luzatzen diegu Gipuzkoako eskalataile guztiei erabakitakoa errespetatu dezaten. Denon artean gure lurraldean bizi diren babestutako espezieen eta eskalataileen arteko elkarbizitza lortuko dugu. Helburu horrekin lanean jarraituko dugu Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Gipuzkoako Mendizale Federaziotik, eskalataileen ezinbesteko kolaborazioarekin

- *Belako haitza: permitido todo el año*
- *Hargorri: permitido desde el 1 de octubre hasta el 28/29 de febrero.*
- *Endaitzburu: prohibido todo el año*

Como la regulación tiene base científica, solicitamos a toda la comunidad de escaladores que la respeten. Entre tod@s estamos haciendo compatible la práctica de la escalada y la protección de las especies amenazadas en nuestra provincia. Con ese objetivo seguiremos trabajando desde la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Federación Guipuzcoana de Montaña con la imprescindible colaboración de l@s escalador@s.

Donostian, 2017ko otsailaren 22an

En Donostia, 22 de febrero de 2017